

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeko lehenik eta behin inbertsio bat egin beharko dugu, lokal bat alokatuz udaletxeari, furgoneta bat erosiz, materiala gure lokalera eramateko (jostailu eta liburuak), eta ikastetxe ezberdinetara joateko horiekin. Material eta jostailu ezberdin batzuk ere erosi beharko ditugu, hitzaldi eta guraso bileretan jolasen funtzionamendua praktikan jarri ahal izateko.

- **Kostu finkoak:** Ordenagailuak, proiektorea, lokalaren alokairua, argia, ura, elektrizitatea eta interneta.

- **Kostu aldagarriak:** Egin beharreko liburuak, hilabete bakoitzaren arabera eskaerak aldatuko dira, beraz produkzioaren kostua aldatuko da.

- **Eskala-ekonomiak:** Liburu fisikoak inprimatzerako garaian ahalik eta kantitate handiena ekoizten saiatuko gara unitateko kostuak murriztu ahal izateko.

- **Hedapen-ekonomiak:** Inprenta berdina erabiliko dugu, bai liburuak egiteko, baita kamiseta eta boltsak egiteko. Horrela gure prezioa murriztuz.

100€ urtean, lokalaren seguroarentzat.